

KULTURA>



Argazkia: Ana Domínguez

ANTZERKIA> IKASTAROA

Antzezleei zuzenduriko ikastaro trinkoa

Joan zen zapatuan, Abadiñoako Muntzaratz auzoko Banarte antzerki taldearen lokalean batu ziren. Antzerkiola Imajinarioaren sortzaileetako bat izan zen Ander Lipusek gidatu zuen ikastaroan parte hartze-
ra gerturatutako antzerkizaleak.

Ikasle kopuruaren gehienezko muga 15 lagunetan ipini zuten antolatzaileek, eta laster bete ziren tokiak: interes handia piztu du eskualdeko antzerkigile eta antzerkizaleengan proposamenak, eta arrakasta nabarmena izan du Muntzaratzko ikastaro trinkoak.

Entrenamendu fisikoaren zein ahots lanketaren inguruko trikimailuak eskaini zizkieten zapatuko ikastaroan antzerkizaleei.

Goizean goiz hasi eta iluntzera arte, antzerki teknika eta praktika burutu zituzten.

Antzerkiaren teoriak eta praktikaren gaineko gaiak eskaintzen Ander Lipus aktore markinarrak jardun zuen Muntzaratzen: bere esperientzian oinarritutako jarraibideak parte-hartzaileekin konpartitu zituen Ander Lipusek.

Teoriari dagokionez, tradizio japoniarreko 'noh' antzerkiari eta Tadeusz Kantor antzerkigile poloniarrek sortutako teknikari buruzko dokumentazioa eskaini zieten parte-hartzaileei, besteak beste. Antzerki antropologiara gerturatzeko aukera ere izan zuten: teknika eta estetika berriak ikasteko jokia izan zuten bidea. ■ I.E.

Goizean hasi eta iluntzera arte iraun zuen ikastaroak

12 DF eskolaren azkeneko saioa

Martxoaren 24an Asier Altunak eta Eider Rodriguezek eskainiko duten saioagaz emango dute Plateruenero DF bertsozale eskolaren bigarren edizioa amaituzat.



13 Karrikaren antzezlan berria

'Oinez dabilen jende eskasa' izenekoa da Karrika antzerki taldeak martxoaren 20an San Agustinen estreinatuko duena. Zuzendariagaz egon gara.